



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna  
Unión Europea

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtsa (EGEF)  
"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

## GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO LAGUNTZAK –

eko deialdia

### PROIEKTUAREN AZALPEN-MEMORIA - ONDARE NATURALAREN LERROA

(Diru-laguntza eskatzen duen proiektu bakoitzerako bat bete behar da)

#### ONDARE NATURALAREN LERROAREN MEMORIAREN EDUKIA - Biodibertsitatea

Erakunde eskatzaileak Ondare Naturala - Biodibertsitatea lerroan aurkeztu beharreko Proiektuaren Memoriak, gutxienez, honako informazioa jasoko du, gehienez ere, 20 orrialdetan:

- Eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektuaren titulua.
- Proiektuaren ekintza nagusiaren tipologia (Aginduaren 2.c artikulua arabera).
- Proiektua garatuko den kokalekuaren informazioa, dokumentazio kartografikoan oinarrituta (mapak/planoak):
  - Kokapen geografiko orokorra udalerrian eta jarduketa-gunearen kokapen zehatza (kokapena, izendapena, UTM koordenatuak, etab.), baita jarduketaren xede den azalera ere.
  - Mapan identifikatzea ekintzen xede izango diren gune hauek: babestutako espazio naturalak; EAEko gune hezeetako Lurralde-plan Sektorialeko hezeguneak; erkidego edo eskualde mailako intereseko habitatak edo espezieak edota katalogatutako espezieak dituzten lursailak; konektibitate ekologikorako gune nabarmenak edo tokiko aukera-espazioak.  
Oharra: Ahal izanez gero, eransten diren mapak Geoeuskaditik atera beharko dira eta zenbait geruza izan beharko dituzte aktibatuta (adibidez, Natura 2000, habitatak, espezieen inbentarioak,...), guneko lege-babeseko maila edo ingurumen-hobekuntzarako giltzarriak diren bestelako alderdiak zehazteko. (Ikusi esteka hau: [http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?conf=INGURUMENA/INGURUMENA.xml&defgroups=natura\\_2000&layers=natura\\_2000-LIC\\_ZEC](http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?conf=INGURUMENA/INGURUMENA.xml&defgroups=natura_2000&layers=natura_2000-LIC_ZEC)).
  - Jarduketaren azalera, Natura 2000 Sareko azalera eta gainerakoa bereiziz.
- Diruz lagunduko den proiektuaren helburu orokorrak eta zehatzak, baita helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren faseak eta ekintzak ere, horien garapenerako kronogramarekin batera. Ahal den neurrian, zehaztu beharko dira proposatutako ekintzen unitate fisikoak (jarduera-azalerak, metro linealak, ale kopurua, unitateak, eta abar), dedikazioak eta kostuak (langileak, materialak, eta abar.).  
Oharra: eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektua garrantzia handiagoko beste batean sartuta badago edota aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuen jarraipena diren jarduketak aurreikustekotan, erakunde eskatzaileak argitu beharko du zeintzuk diren deialdi honetan eskatzen diren jarduketa zehatzak eta diru-laguntzaren lerroarekin loturarik ez duten horietatik bereizi beharko ditu, baita diruz lagundutako aurreko ekintzen jarraipena diren besteetatik ere. Halaber, jarduketak justifikatu beharko ditu. Jarraipena diren jardueren kasuan, haien beharra justifikatu beharko da eta aurreko ekintzen sintesia eta informazio kartografikoa aurkeztu beharko dira.
- Proiektuan proposatutako ekintzen ingurumen-garrantzia, jarduketaren xede diren habitatak edota espezieak zaintzeko edota leheneratzeko ekarpen eraginkorri dagokionez, honako hau kontuan hartuta: jarduketaren xede diren elementuen kontserbazio-egoera edo mehatxu-maila, horien hasierako eta amaierarako aurreikusitako okupazio-azalera, konektibitate ekologikoaren hobekuntza, etab.
- Ekintzak amaitu osteko aldirako aurreikusten diren mantenu-beharrak eta/edo jarraipen-beharrak, proiektuaren helburuen lorpena eta haien jasangarritasuna bermatzeko.
- Egikaritutako diren ekintzei dagokienez aurreikusitako komunikazio- eta hedapen-jardueren xehetasuna, elementu hauen inguruko informazioa barne: helburuak, hedabideak eta formatua, xede-publikoa, inplikaturako eragileak edota sektoreak, etab.



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna  
Unión Europea

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtza (EGEF)  
"Europa egiteko modu bat"



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

## ONDARE NATURALAREN LERROAREN MEMORIAREN EDUKIA - Geodibertsitatea

Erakunde eskatzaileak Ondare Naturala - Geodibertsitatea lerroan aurkeztu beharreko Proiektuaren Memoriak, gutxienez, honako informazioa jasoko du, gehienez ere, 20 orrialdetan:

- Eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektuaren titulua.
- Proiektua garatuko den kokalekuaren informazioa, dokumentazio kartografikoan oinarrituta (mapak/planoak):
  - Kokapen geografiko orokorra udalerrian eta jarduketa-gunearen kokapen zehatza (kokapena, izendapena, UTM koordinatuak, etab.), baita jarduketaren xede den azalera ere.
  - Mapan identifikatzea ekintzen xede den interes geologikoko lekua, bere testuinguru geologikoa eta babestutako espazio naturalak, EAEko gune hezeetako Lurralde-plan Sektorialeko hezeguneak, Biosferaren Erreserba eta Euskal Kostaldeko Geoparkea.  
*Oharra:* Ahal izanez gero, eranstean diren mapak Geoeskaditik atera beharko dira eta zenbait geruza izan beharko dituzte aktibatuta, adibidez, babestutako lekuak (parke naturalak, biotopoak, etab.) edo Natura 2000, hain zuzen ere, guneke lege-babeseko maila zehazteko. Geoeskadi: <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoeskadiWAR/index.jsp>  
Era berean, testuinguru geologikoa den gunearen 1:25.000 mapa bat erantsi egingo da. Mapa hori Energiaren Euskal Erakundearen webgunean dago eskuragarri, zehazki, Geo-Meatzaritza Atarian: <https://agportal.eve.eus/agportal/apps/webappviewer/index.html?id=d427189d197e4bcfbb670c5165662c94>.
  - Jarduketaren azalera, Natura 2000 Sareko azalera eta gainerakoa bereiziz.
- Diruz lagunduko den proiektuaren helburu orokorrak eta zehatzak eta EAEko Geodibertsitatearen Estrategian (hori balego) ezarritako helbururekiko lotura. Halaber, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren faseak eta ekintzak jasoko dira, horien garapenerako kronogramarekin batera.  
*Oharra:* eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektua garrantzia handiagoko beste batean sartuta badago edota aurreko deialdietan diruz lagundutako proiektuen jarraipena diren jarduketak aurreikusitokotan, eskatzaileak argitu beharko du zeintzuk diren deialdi honetan eskatzen diren jarduketa zehatzak eta diru-laguntzaren lerroarekin loturarik ez duten horietatik bereizi beharko ditu, baita diruz lagundutako aurreko ekintzen jarraipena diren besteetatik ere. Halaber, jarduketak justifikatu beharko ditu.
- Proiektuan proposatutako ekintzen ingurumen-garrantzia, jarduketaren xede diren interes geologikoko lekuak babesteko, zaintzeko eta nabarmentzeko ekarpen eraginkorrari dagokionez. Balioztapena modu kuantitatiboan edota kualitatiboan egin ahalko da eta oinarritzat hartuko du honen inguruko informazioa: jardungo den elementuen kontserbazio-egoera, zaurgarritasuna edo mehatxu-maila; interes zientifikoa, didaktiko-dibulgatzailea edo turistikoa-aisialdikoa, etab. Hori guztia dago eskuragarri EAEko Geodibertsitatearen Estrategian.
- Gauzatu beharreko ekintzen deskribapena. Interes geologikoko lekua kontserbatzeko, babesteko eta haren balioa nabarmentzeko gauzatuko diren neurriak, gainerako ondare naturalaren kontserbazio eta babesarekiko bateragarritasuna ere kontuan hartuta.
- Proposatutako jarduketaren segimendu-planaren definizioa (helburuak, metodologia, adierazleak, etab.).
- Egikarituko diren ekintzei dagokienez aurreikusitako komunikazio- eta hedapen-jardueren xehetasuna, elementu hauen inguruko informazioa barne: helburuak, hedabideak eta formatua, xede-publikoa, inplikaturako eragileak edota sektoreak, etab.



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna  
Unión Europea

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtza (EGEF)  
"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

## **ONDARE NATURALAREN LERROAREN MEMORIAREN EDUKIA - Erriberen eta ibilguten garbiketa**

Erribera eta ibilguten hondakinen garbiketarako proiektuen kasu zehatzean, erakunde eskatzaileak aurkeztu beharko duen proiektu-memorian, gutxienez, honako informazioa jasoko da, gehienez ere, 10 orrialdetan:

- Eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektuaren titulua.
- Proiektua garatuko den kokalekuaren informazioa, dokumentazio kartografikoan oinarrituta (mapak/planoak):
  - Kokapen geografiko orokorra udalerrian eta jarduketa-gunearen kokapen zehatza (kokapena, izendapena, UTM koordenatuak, etab.), baita jarduketaren eraginpeko ibai-zatiarena ere (m<sup>2</sup>, ha, esku hartutako metro linealak,...).
  - Mapan identifikatzea, hala badagokio, egingo diren ekintzek zuzenean edo zeharka eragina izango duten intereseko ingurumen-guneak (babestutako espazio naturalak, erkidego mailako intereseko habitatak, intereseko espezie basatiak dituzten lursailak, eta.).  
*Oharra:* Ahal izanez gero, eranstean diren mapak Geoeuskaditik atera beharko dira eta zenbait geruza izan beharko dituzte aktibatuta (adibidez, Natura 2000, habitatak, espezieen inbentarioak,...), guneko lege-babeseko maila edo ingurumen-hobekuntzarako giltzarriak diren bestelako alderdiak zehazteko. (Ikusi esteka hau: [http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?conf=INGURUMENA/INGURUMENA.xml&def\\_groups=natura\\_2000&layers=natura\\_2000-LIC\\_ZEC](http://www.geo.euskadi.net/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?conf=INGURUMENA/INGURUMENA.xml&def_groups=natura_2000&layers=natura_2000-LIC_ZEC)).
  - Jarduketaren azalera, Natura 2000 Sareko azalera eta gainerakoa bereiziz.
- Diruz lagunduko den proiektuaren ekintzen eta faseen deskribapena, horien garapenerako kronogramarekin batera. Proiektua arro hidrologikoko beste udalerrri batzuekin koordinatuzkotan, eginkizunak eta arduradunak identifikatzea. Era berean, adierazi beharko da burutuko diren ekintzetan kolektiboak inplikaturiko diren (sozialak, hezkuntzaren eremukoak, etab.).
- Jarduketa-ingurunean dagoen eta egingo diren ekintzen eraginpean egon daitekeen biodibertsitatea zaintzeko eta babesteko burutuko diren neurrien deskribapena.
- Eskatutako proiektuaren ondoriozko inpaktuen eta ingurumen-presioen murrizketaren kuantifikazioa, zehazki: bilduko diren hondakinen izaera/tipologiaren aurreikuspena eta kopurua (kg, t,...), sortuko diren enpleguen kopurua eta horien iraupena eta biztanle onuradunen kopurua eta ehunekoa.
- Egikarituko diren ekintzei dagokienez aurreikusitako komunikazio- eta hedapen-jardueren xehetasuna, elementu hauen inguruko informazioa barne: helburuak, hedabideak eta formatua, xede-publikoa, inplikaturiko eragileak edota sektoreak, etab.